

Bero-beroan

ONINTZA IRURETA AZKUNE

TV3k Valentzian emititzeari utzi dio

VALENTZIAKO GOBERNUAREN oztopoak gaindituz eta herri mugimenduen borondateari esker 26 urtez Herrialde Katalanetako TV3 telebista kate publikoa Valentzian ikus ahal izan dute. Valentziako Gobernuak ez du inoiz gustuko izan katalanez emititzen duen katea eta azken urteotan hesi asko jarri dizkio, tartean ekonomikoak. Ikus-entzunezko lege berriaren arabera, TV3k Valentzian emititzen segiz gero, 60.000 euroko isuna

jasoko luke bi astean behin. Emisioen bultzatzaile nagusi izan den Acció Cultural elkarteak emisioak etetea erabaki du.

D ereduak %10 egin du gora Nafarroan

ORAINDIK ez dago datu ofizialik aurrematrikulazio epea itxi berri baita, baina lehen kolpeko datuen arabera guraso nafarrek umeak D ereduari matrikulatzeko apustua indartu dute. Azkenaldian geldialdia bizi izan du D ereduak, adibidez iaz behera egin zuen matrikulazioak.

Behin-behineko datu horiek erakusten dute eskola publikoetan zein pribatuetan egin duela gora D ereduak.

“Hogei ta” gazteentzat

EUSKAL KULTUR ERAKUNDEAK gazteei euskal kultura helarazteko egitasmoa jarri du abian. Gazteak euskal kulturaren berrasmatzearen aktore izatea du xede egitasmoak. Ekimenen oinarri euskara bera izango da eta arte bisualek, argazkilaritzak eta arte plastikoek, esate baterako garrantzi handia izango dute.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

BAHEA

Roberto Manjon, Osasungintza Euskalduntzeko Erakundeko kideak Gara-n esanak:

“Osakidetzak, bai herritarrek ospitalea utzitakoan, bai osasun-zentroetako zerbitzuak hartutakoan gogobetetze-inkesta korporatibo bat zuzentzen die herritarrei, izan duten arreta balioetsi dezaten. Orain, (...) [herritarrei] ez diete galdetzen ea hizkuntzaren aldetik jaso duten arreta ere egokia iruditzen zaizen. Beraz, Osakidetzak herritarrei aukera kendu die hizkuntzatrataerari buruz iritzia adierazteko. (...) Dekretuak diotenaren kontra uko egin dio euskarak osasun-zerbitzuen kalitatean duen eragina neurtzeari. (...)”.

Juan Kruz Lakastak Diario de Noticiasen esanak, prentsaurrekoan Mendilibar futbol entrenatzailea euskaraz aritu zela-eta: “Esan didate lehendakari gorritxoak [Izco] ez daukala euskararekiko kontrako jarrerarik, esaten ari zirena jakin baino ez zuela nahi. Gauza bat da Izco dauzkan jarrera linguistiko intransigenteez jabetuta ez egotea eta bestea benetan halakorik ez edukitzea. Izco ez du euskara ulertzen, baina Osasunako milaka jarraitzailek bai. Ez da zaila bi minutuz dotoreziaz isilik egotea, enpatiatatik eta besteekiko begirunez. Beharbada hurrengoan. Hala bedi”.

TALAIAN

EAJren apustu nuklear koherentea

Joan den astean, Espainiako Kongresuan, EAJk eta CIUK aurkeztutako zuzenketa onartu zuten. Zuzenketaren arabera, zentral nuklearrek 40 urteko bizitza izan beharrean, gehiagokoa izan ahaliko dute. PSOE eta PPK onartu egin zuten. EAJk aurpegi biko jokatu du eta ziurtatu du Euskal Herriatik gertu dagoen Garoña esandako epean ixtea. EAJk badaki Garoña kongresuan hartutako erabakitik kanpo dagoela. Akordioak ez dio ezer Garoñaren etorkizunaz. Horrela, CIUK esan zion EAJri akordioak ez zuela Garoña kanpoan uzten eta horrela izanda zentral nuklear horrek segi zezakeela lanean, Espainiako Gobernuak hala nahi izanez gero.

EAJren jarrera zinikoa da. Garoña ixtearen alde egin du etxetik gertu dagoelako eta hauteskunde usainean ez zaielako komeni jarrera aldatzea. Aldiz, ez dio axola beste zentral batzuk 50 edo 60 urtez lanean aritzea. Dena dela, alderdia koherentea da bere apustu nuklearrarekiko. 60ko hamarkadako nuklearizazio hura guztia babestu zuen EAJk. Adierazlerik garbiena Lemoizko munstroa izan zen, zeren hura abian jarriko ez bazen kobazuloetara itzuli, azak landatzen aritu eta kandekek argiztuta bizi beharko genukeen. Horrela arrazoitu zuten apustu nuklearra Arzalluz eta Garaikoetxeak. Lemoizek ez du inoiz funtzionatu eta begira nola bizi garen eta nola egiten dugun lan. Urkulluren EAJk lobby nuklearraren interesen alde lan egiten segitzen du, Iberdrola eta Banka buru direla. Ez da kasualitatea Sabino Arana Fundazioak Iberdrolari egindako omenaldi eta onarpen publikoa. Juan Mari Atutxa, EAJren fundazio horren lehendakari izateaz gain, alderdi horretako kide aditua da, eta Iberdrolako administrazio kontseiluko kidea. Koherentziak, hainbatetan, beregan dauka konpromisoa eta mendekotasuna.

Juan Mari Arregi